

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa



Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA 2018

*Ingurumen Sailburuordetza
2018ko martxoa. 1Berr.*

1.	SARRERA	3
2.	2018KO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	3
	2.1.- 2018KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK	5
	2.2.- 2018KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: BERARIAZKO HELBURUAK ETA JOMUGAK	6
	1. HELBURUA: IPPC JARDUERETARAKO ARAUDIA JARRAITASUNEZ BETETZEA.	6
	2.2.1.- 01/2018 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	6
	2.2.2.- 06/2018 Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan	7
	2.2.3.- Ingurumen-erantzukizuna 04/2018 Proiektua	7
	3. HELBURUA: ARRISKU HANDIENA DUTEN ETA IPPC EZ DIREN JARDUEREN INGURUMEN-ARAUDIA BETETZEA.....	7
	2.2.4.- 02/2017 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua	7
	2.2.5.- 03/2018 Proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) ikuskatzea	8
	4. HELBURUA: HONDAKINEN ARAUDIA BETETZEA.....	8
	2.2.6.- 05/2018 Proiektua: Hondakinak tokiz aldatzea	9
	5. HELBURUA: INGURUMEN-ARAZOAK KONPONTZEN EDO KONTROLATZEN LAGUNTZEA	9
	2.2.7.- 08/2018 Proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean ...	10
	2.2.8.- 07/2018 Proiektua: Industriaguneen jarraipena	10
	7. HELBURUA: ABISUAK (KEXAK, SALAKETAK, GORABEHERAK...) ETA PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENAK KUDEATZEA... ..	11
	2.2.9.- 10/2018 Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	11
	9. HELBURUA: IKUSKAPEN-AHALMENA HANDITZEA.	11
	10. HELBURUA: IKUSKAPENAK EUROPAKO TESTUINGURUAREN ARABERA EGITEA.....	11
3.	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.	12
4.	INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	12
5.	KONTROL-PLANA.	12
6.	INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.	13
7.	INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.	13

1. SARRERA

2018ko programak xede du 2018an aurrera eramango diren proiektuak zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzaren **2011-2018** Ingurumen Ikuspenerako eta Kontrolerako Plana eta arlo horretako indarreko araudia betetzeko. Horretarako, 2018an aurrera eramango diren proiektuek Planaren helburu estrategikoak aintzat hartuko dituzte, eta haien oinarritzko agirietan jasoko dira xehetasun operatiboak, ekintza-plana eta egingo den jarraipena. Programa horrek proiektuen helburuak eta xedeak eta proiektu horiek helburu estrategikoekin duten lotura jasotzen ditu, nagusiki.

2. 2018ko PROGRAMAREN HELBURUAK

2018ko Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programa funtsezko zutabe hauetan dago oinarrituta:

a) **IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak**¹.

Ikuskapen horien helburua da IPPC enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri handi batean bete ditzatela.

b) **IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.**

Ikuskapen horien helburua da IPPC ez diren enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri handi batean bete ditzatela lortzea. Aurreko urteetan IPPC ez diren jardueretan Ingurumen Kontrolerako Azterketen laguntzarekin egin diren jarduerak betetze-maila hobea dute. Horregatik, ekitaldi honetan, metodologia berarekin jarraitzea proposatu da. Hala, garrantzitsua da aurreko ekitaldian ikuskatutako enpresetan jarraipena egitea, horietan dauden desbideratzeak zuzendu ahal izateko eta betetze-maila handitu ahal izateko.

c) **Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS)**

Proiektu berri bat abiaraziko da, operadoreek beren baimenetan jasotako baldintzak eta Ingurumeneko Sailburuordetzak IENSEi buruz argitaratutako jarraibide teknikoak zenbateraino betetzen dituzten egiaztatzeko.

d) **Administrazioaren Erakunde Kolaboratzaileak (AEK).**

Atmosferarako igorpenen kontrol-kalitatea bermatzeko xedez, 2018an Administrazioaren erakunde kolaboratzaileei atmosferarako igorpenak kontrolatzeko ikuskapenak mantenduko zaizkie, kontrol ofizial gehien egiten dituztenen kasuan.

¹ Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren esparruko jarduerak. Dekretu horren bidez, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zen.

e) Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea

Proiektuaren xedea operadoreei Ingurumen Erantzukizunaren Legearen aplikaziotik eratorritako obligazioak betetzen laguntzea da, aintzat hartuta 2017ko urriaren 23an argitaratu zen APM/1040/2017 Agindua, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuak— nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

f) Hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea

Mugaz gaindiko tokialdaketetarako proiektu espezifikoa gauzatzen jarraituko da, eta lehentasunezko eremutat hartuko dira EBko hondakinak Estatura sartzeko puntuak, tokialdaketak eta beste administrazio batzuetako komunikazioak.

g) Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.

2018an lau proiektu gauzatuko dira ingurumeneko arazoak konpontzeko edo arintzeko xedez:

- Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak eten ostean. Etenen ari diren jardueren kopurua nabarmen jaitsi da, ingurumen-alderdien kudeaketa argirik izan ez duten jardueretan, baina haiei lotutako ingurumen-arriskua handia da.
- Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa. Horiek zerikusia dute kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, noiznahi egon dadin informazioa jasotzeko eta ebaluatzeko aukera, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak gutxitzeko komeni diren jarduerak hastekoa ere.
- Zaintza-ikuskapenak hiru lurralde historikoetako industrialdeetan. Instalazioetara egindako ikuskapenekin lortutako esperientziak agerian uzten du badirela zenbait jarduera datu-baseetan azaltzen ez direnak eta horiek nekez sar daitezkeela ekitaldi bakoitzean egin beharreko ikuskapenen zerrendetan. Horregatik, ikuskatu behar diren operadoreen informazioa biltzen jarraituko da.

2.1.- 2018ko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Taula honek 2018rako programatutako proiektuak jasotzen ditu, Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoak garatzeko.

Planaren helburu estrategikoa	ERREFERENT ZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
IPPCren ekintzak ikuskatzea (3.1.i atala)	2018/01	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak. Betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoa. IPPC jarduera berrien ikuskapena, abian jartzen direnetik urtebetera
	2018/06	Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS)	Zehaztea operadoreek zenbateraino betetzen dituzten Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemekin (IENS)
	2018/04	Ingurumen-erantzukizuna	Beharrezko mekanismoak artikulatu direla bermatzea, 1. eta 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako operadoreek, ARM/1783/2011 Aginduaren bidez, Erantzukizunpeko Adierazpena aurkez dezaten, urriaren 23ko APM/1040/2017 Aginduan ezarritako daten barruan.
IPPC ez diren arrisku handieneko jarduerak ikuskatzea (3.1.iii atala)	2018/02	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	Aurreko urtean ikuskatutako enpresen betetze-maila areagotzea betetze-maila handira edo ertain-handira. IPPC ez diren jarduera-multzo berrien ikuskapena.
	2018/03	AEKak ikuskatzea	Atmosferara egindako emisioen kontrol ofizialak egiten dituzten AEKak ikuskatzea
Hondakinen kudeaketa (3.1.iv atala)	2018/05	Hondakinak tokiz aldatzea	Erkidegoko hondakinen sarrera-puntuak, tokialdaketak eta operadoreak ikuskatzea.
Ingurumen-arazoak (3.1.v atala)	2018/08	Hondakin arriskutsuak (HA) eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
	2018/07	Industriaguneen segimendua	Lurralde bakoitzeko industrialde garrantzitsuak gainbegiratzea aurretiaz ohartarazi gabe, legez kontrako ingurumen-jarduerak identifikatzeko eta IPPC ez diren jardueren ikuskapeneko proiektuan sar daitezkeen jardueri buruzko informazioa biltzeko.
Abisuak/larrialdiak kudeatzea (3.1.vii atala)	2018/10	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Horabeheretan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko 24 orduko erantzun-zerbitzua. Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboen aurrean

Proiektu guztiak dokumentu batean egiten dira, egitura honekin:

1.	<i>Aurrekariak</i>
2.	<i>Proiektu mota</i>
3.	<i>Helmugak eta xedeak.</i>
4.	<i>Jarduera-plana</i>
5.	<i>Adierazleak</i>
6.	<i>Jarraipena</i>
7.	<i>Baliabideak</i>
8.	<i>Kronograma</i>
9.	<i>Txostenen zerrenda</i>

2.2.- 2018ko ikuskapen-proiektuak: Berariazko helburuak eta jomugak.

Jarraian, proiektuen berariazko helburuak eta xedeak zehazten dira, **Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategiko** bakoitzaren barruan.

1. helburua: IPPC jardueretarako araudia jarraitasunez betetzea.

2.2.1.- 01/2018 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren arabera, IPPC araudiaren aplikazio-eremuan dauden instalazioek ingurumeneko ikuskapen-plan bat eduki behar dute. Ikuskapen-plana oinarritzat hartuz, ikuskapen-programak prestatzen dira, eta instalazioetara egingo diren bisiten maiztasuna barne hartzen dute. Bisita-maiztasun hori arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera antolatzen da. Arriskuak ebaluatzeko prozedura Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean argitaratuta dago², programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera.

2018an, honako enpresa hauek ikuskatuko dira: urtebeteko maiztasuna ezarrita daukaten 18 enpresa, bi urteko maiztasuna ezarrita daukaten 52 enpresa, hiru urteko maiztasuna ezarrita daukaten 60 enpresa eta aurrez aldizkakotasunik zehaztuta ez duten 8 enpresa. Orotara, 138 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea.
- Sailkatutako desbideratze larriak eta esanguratsuak zuzentzea sei hilabeteko epean gehienez, eta ez dadila betetze-maila txikia edo txiki-ertaina duen jarduerarik egon.

² <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informacion/procedimientos-de-inspeccion-ambiental/r49-3252/es/>

- Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
- IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.

2.2.2.- 06/2018 Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan

Egiaztatzea operadoreek zenbateraino betetzen dituzten haien baimenetan jasotako baldintzak eta Ingurumeneko Sailburuordetzak IENSEi buruz argitaratutako Jarraibide Teknikoak.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Aztertzea enpresek zenbateraino betetzen dituzten IBBk ezartzen dituen eskakizunak IENSEkin neurtutako parametroetarako.

2.2.3.- 04/2018 Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna

2017ko urriaren 30ean, APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuak— nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eraman nahi dituzten jarduerari datzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzeko denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean, hau da, 2019ko urriaren 31rako.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak ematea, 26/2007 Legetik eta 2017ko urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindutik eratorritako betebeharrak bete dezaten.

3. helburua: Arrisku handiena duten eta IPPC ez diren jarduerak ingurumen-araudia betetzea.

2.2.4.- 02/2018 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua

Aurreko urtean ezarritako sistemarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta hasiera batean kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen da. Hala, aurreikusi da 159 enpresa ikuskatzea. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik

ateratako datuak ustiatuko dira, eta jarraipena egingo da ez betetzeak dituzten eta eskaera egin den enpresa guztietan.

Proiektu hau urte askotakoa da, eta 2014an hasi ziren haren jarduerak. Proiektu honekin lotura duten zenbait jarduera Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dituzte, eta gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesa izango dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- 2018an ikuskatutako IPPC ez diren enpresatatik % 95ek araudiarekiko betetze-maila ertaina, ertain-handia eta handia izatea.
- 2017an ikuskatu diren IPPC ez diren enpresen kasuan betetze-maila moderatua (horiek izanik ez-betetze larrienak) dutenen kopurua % 10era mugatzea, ikuskatutako enpresetan jarraipenaren egin ostean. Ez-betetze horiek gehienbat administrazio-arlokoak izanik.

2.2.5.- 03/2018 Proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) ikuskatzea

2014az geroztik, Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) kontrol-eremuan, Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) jarduera ikuskatzen da, ILEek kontrolen adierazgarritasuna eta aplikaziozko arautegia betetzen dituztela egiaztatzeko xedez.

Denbora horretan zehar, ikuskapenerako lagungarria den dokumentazioaren zati bat garatu da, kutsatzaile batzuei aplikatu beharreko neurketa-arauei dagokienez.

Iritzi zaio 2018an ILEak ikuskatzen jarraitu behar dela ordura arte ikuskatu ez diren kutsatzaile edo jarduera-sektoreetan, eta beharrezkoa dela kutsatzaile guztientzat lagungarria den dokumentazioa prestatzea ere. Amaitzeko, antzeman daitezkeen desbideratzeen ebaluazioa egitea, eta ebaluazio horri dagokionez gauzatu behar diren administrazio-jarduerak zehaztea.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

ILEek fokuak neurtzeko ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea, eta, horretarako, lau ikuskapen egitea.

-ILEen kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzea, eta, bereziki, airearen ingurumen-bektorean ingurumen-arazoak dituzten jardueretan.

-ILEei egindako ikuskapenak eta haien irismena sistematizatzea.

4. helburua: Hondakinen araudia betetzea.

Eremu honetako jarduerak hondakinen mugaz gaindiko tokialdaketen ikuskapenak egitean oinarrituko dira.

2.2.6.- 05/2018 Proiektua: Hondakinak tokiz aldatzea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 Erregelamenduak, 1013/2006 Erregelamendua (EB) aldatzen duenak, ezartzen du estatu kideek mugaz gaindiko hondakinen tokialdaketei lotuta ikuskapen-plan bat edo gehiago eduki behar dituztela, 2017ko urtarrilaren 1erako gehienez ere. Plan horietan jaso behar dira ikuskapenetan parte hartuko duen agintaritzak bakoitzari esleitutako zereginak, besteak beste.

Izan ere, 2011-2018 Ikuskapen Planak bere helburu estrategikoen artean jasotzen du hondakinen kudeaketari buruzko araudia bete behar dutela kopuruagatik edo arriskugarritasunagatik ingurumenerako arrisku handiagoa dutenek. Hala, 2011-2018 Ikuskapen Plana aldatu da, berariaz txertatzeko EBk eskatzen dituen hondakinen mugaz gaindiko tokialdaketen ikuskapenak.

Aurreko urteetan ezarritako sistematikari jarraikiz, hondakinen mugaz gaindiko tokialdaketen ikuskapen programatuarekin jarraituko da.

Helburu espezifikoa eta xedeak:

- Ikuskapen programatuak EBko estatu kideetatik edo estatu kideetara hondakinak inportatzen/esportatzen dituzten operadoreetan. 9 ikuskapen egingo zaizkie 2016 eta 2017 bitartean bildutako informazioan identifikatu diren operadoreei.
- Ikuskapen programatua portuetan. Portuen ikuskapenak egingo dira, Aduanak gure laguntza eskatzen badu eta/edo Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak (MAPAMA) proposatutako Kudeaketa Aginduak, behin sinatuta, horrela jasotzen badu.
- Ikuskapen programatua errepideetan. Ertzaintzarekin harremanetan jarriko gara, etorkizunean ikuskapenak antolatzeko errepideetan, hondakinak tokiz aldatzeari dagokionez.
- Legez kontrako azaleratzeak. Mugaz gaindiko hondakin-tokialdaketen ikuskapen-planen barruan programatu diren ikuskapenetarako prozedura orokorra aplikatzen jarraituko da beste proiektu batzuen ikuskapenetan, hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreak identifikatze aldera.
- Hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa biltzeko prozedurarekin jarraituko da.

5. helburua: Ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea

Planaren helburu estrategiko hau Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzea xede duen kudeaketara ondoen egokitzen diren helburuetako bat da, batez ere industria-jarduerek ingurumen-arloko arazoak konpontzen laguntzen duten kasuetan (kontuan hartuta gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak). Urte batzuk badira jada hurbilpen horrekin lan egiten ari dela, eta emaitza onak lortzen ari da. 2018rako, aurreko urteetan hasitako edo proposatutako proiektu batzuekin jarraitzen da.

Jarraian, helburu estrategiko honekin loturiko proiektuetarako helburu espezifikoa eta jomugak zehazten dira.

2.2.7.- 08/2018 Proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean

2017an zehar, antzeman zen proiektuan sartzen ziren etete-espediente berrien kopurua murriztu egin zela, industria-jardueren egoera sozioekonomikoaren ondorioz. Aurreko ekitaldian bezala, konkurtso-prozedurak eragiten dituzten etete-kasu gehienek egoera juridiko berezia dute, eta, ondorioz, Sailburuordetzak arriskuaren kudeaketa sustatzeko asmoz burutzen dituen jarduerak arrakasta-maila desberdina izaten dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak

- Lurra, ura edo airea kutsatzeko ingurumen-arriskua murriztea, arrazoi ekonomikoen ondorioz jarduera eten duten edo konkurtso-prozesu batean dauden edo egon daitezkeen instalazioetan eta arrazoi ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik haien jarduera behin-behinean edo behin betiko eten duten instalazioetan.

Industria-jarduerak eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta lehengaiak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.

- Behin-behinean edo behin betiko eten diren jardueren ingurumen-arriskua identifikatzeko eta kontrolatzeko sistematika mantentzea eta optimizatzea.

2.2.8.- 07/2018 Proiektua: Industriaguneen jarraipena

Azken urteotan, IPPC diren eta IPPC ez diren Instalazioetan egindako ikuskapenekin lortutako esperientziak agerian uzten du badirela zenbait jarduera datu-baseetan azaltzen ez direnak eta horiek nekez sartuko direla ekitaldi bakoitzeko ikuskapen-zerrendetan.

Bestalde, EAEn industrialde ugari daude, eta, ondorioz, kasu askotan, ez dakigu industrialde horietan kokatutako enpresek indarreko ingurumen-legedia betetzen duten eta ingurumenean zenbaterainoko eragina duten. Egoera hobetzeko xedez, aurreikusi da hiru lurralde historikoetako industrialdeetan zaintza-ikuskapenak egitea.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Ikuskatutako industrialdeetan dauden instalazioak detektatzea, zeinak IPPC ez diren instalazioen ikuskapen-zerrendetan sar daitezkeen. 30 enpresa lortzea ikuskapeneko zerrendetan sartzeko.

- Ingurumenari kalte egiten dioten enpresen ohiko jarduerak ekiditea, hala nola igorpen lausoak, kontrolik gabeko isurketak egiteko arriskua, hondakin (arriskutsuen eta ez-arriskutsuen) kudeaketa eta/edo biltegiatzea, inbentarioan sartutako lurzoruetan jarduera esanguratsuak burutzea eta ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen beste jarduerak batzuk.

7. helburua: Abisuak (kexak, salaketak, gorabeherak...) eta programatu gabeko ikuskapenak kudeatzea.

Helburu estrategiko horretarako, hainbat urtetako proiektua ezarri da. Proiektuaren garapena honako hau erdiestera bideratuta dago: ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak izan ditzaten abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, haietan sortutako hondakinak kudeatzeko. Laguntza jarduleei ILE I. maila emango zaie, urriaren 16ko 212/2012 Dekretua betez, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena, Administrazioak kontratatutako jardueretarako.

2.2.9.- 10/2018 Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa

Salaketetatik eratorritako abisuen, SOS-DEIAK abisuen, gertakarien, istripuen eta abarren erantzuna geroz eta garrantzitsuagoa da araudiaren betetze-maila areagotzen doan heinean; izan ere, normala ez den funtzionamendu-egoeretatik eratorritako ingurumen-eraginak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen hasi dira.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Erantzuna antolatzea, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.
- Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboen planetarako erantzuna antolatzea.
- Tartean dauden sailekin koordinazioa hobetzea.

9. helburua: Ikuskapen-ahalmena handitzea.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, efektu biderkatzailea sortzea da garrantzizkoena ikuskapen-ahalmena optimizatzeko, eskura dauden giza baliabideak eta bitarteko materialak egoki kudeatzearen bitartez eta, ikuskapenen osagarri eta sostengu gisa, Ingurumen Lankidetzako Erakundeak erabiliz.

Ondoren azaltzen dira eremu honetako zenbait jarduera-ildo:

- Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoera analitikoki ezaugarritzeko. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

10. helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea.

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak egokitzea estatuko nahiz Europako testuinguruari, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko;

besteak beste, araudia egiteko irizpideetan eta ikuskapenak egiteari dagozkionetan. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.

2018. urtean, Ikuskapen Zerbitzuan daude zerbitzuburu bat, 7 ikuskari tekniko, aholkularitza juridikoa eta laguntza administratiboa. Bi ikuskapen-teknikari Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa) eta beste hiru Arabako Lurralde Historikoan (Gasteizen dute bulegoan, Lakuan).

Programatutako jarduerak dauden baliabideetara egokituta daude, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere egiten diren lanetarako gaitasun teknikoa ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa, eta 2011-2018ko Ingurumen Ikuspenerako eta Kontrolerako Planetik ateratako zuzentzauekin bat etorritik, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2018. urteko ikuskapen-programan sartutako jarduera batzuk egiteko laguntza gisa.

4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

2017an zehar, Ikuskapen Zerbitzuari lotutako administrazio-prozedura ia guztiak elektronikoki kudeatu eta izapidetu dira. Ikuskapen-txostenak elektronikoki artxibatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Sistema Orokorrean, ezarritako irizpideak betez.

Arlo horretako 2018rako jarduerak oinarri hau izango dute:

- Ikuskapen-prozedura administratiboak zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea xede duen INGURUNET Ingurumen Kudeaketaren Informazio Sistema berrian sartzen hastea, legezketasuna kontrolatzea eta hari jarraipena egitea.
- Ikuskapenari lotutako datuen kontsulta eta ustiapena hobetzea, eta baita Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuetako erabiltzaileen irisgarritasuna ere.
- Sailburuordetzaren beste administrazio-unitate batzuen informazioaren eskuragarritasuna hobetzea.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

5. KONTROL-PLANA.

Kontrolari dagokionez, beste urteetako esperientzian oinarrituta, ILEen laguntza teknikoa mantenduko da IPPC ez diren jardueren araudia eta baimenak betetzen direla egiaztatzeko. Igorpenak kontrolatzeari dagokionez, ILEen arauzko kontrolei jarraipena

egitea planteatu da, IPPC diren edo ez diren jardueren ikuskapen-proiektuen lehentasunak oinarri hartuta.

6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.

2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedientei dagokienez.

7. INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektuetako bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko dute. Oinarrizko irizpide gisa, aurreko proiektuen segimendua gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hasiera proposatu da, gainerakoak baliabideen arabera aurrera eramateko.

Barneko segimendua Programaren egikaritzea doitu joatea ahalbidetuko du, ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei lehentasuna emanez. Jarraipen hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.